

## 60. FITXA BIZKAIA – Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen eta, hala badagokio, mankomunitateen hiri mugikortasuneko diagnostikoak egiteko dirulaguntzak

**Nori zuzendua:** Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitako hiri-mugikortasunaren diagnostikoa egin behar duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak edo, hala badagokio, mankomunitateak

**Sarbide-esteka:** <https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

**Erreferentziazko araudia:** [Bizkaiko Foru Aldundiaren 107/2024 FORU DEKRETUA, urriaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen eta, hala badagokio, mankomunitateen hiri mugikortasuneko diagnostikoak egiteko foru dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dituena](#)

**Eremuak:** Mugikortasuna

**Zenbatekoa:** 500.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2024/11/07 (13:30ean)

### Laburpena

**Hiri-mugikortasunaren diagnostikoak** eginez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira, ahaztu gabe hiri-mugikortasunaren diagnostikoa egiten duen azterketa-dokumentu hau dela hiri-mugikortasuneko planak etorkizunean lortzeko behar den aurretiazko fasea:

- Pertsonen eta salgaien mugikortasunean erregai fosilak erretzeak eragindako **klima-aldaketari aurre egitea**.
- Garraio motordunak sortutako **kutsadura atmosferikoaren eta akustikoaren** aurka borrokatzen laguntzea.
- Hiri- eta landa-ingurumena, herritarren osasuna eta segurtasuna, eta produkzio-ereduaren eraginkortasuna hobetzea** motorrik gabeko garraioaren bidez.
- Mugikortasun jasangarriari buruzko politikak** energia-, ingurumen-, hirigintza eta lurralde-antolamenduari buruzko politikekin koordinatzea
- Garraio-azpiegitura eta -zerbitzuetako inbertsioak arrazionalizatzea**, eraginkortasun-irizpide objektiboetara egokituz.
- Mugikortasunaren arloan, **bide- eta ingurumen-hezkuntzarako politika** garatzea.

g) **Bizimodu osasungarriak** erraztea eta sedentarismoaren aurka borrokatzea

## Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

**Diruz laguntzeko moduko egintzatzat** hartuko da hiri-mugikortasunaren diagnostikoa egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legean aurreikusitako baldintzetan. Dekretu hau argitaratu aurretik egindako diagnostikoei ere dirulaguntza emango zaie, baldin eta **2024ko urtarrilaren 1aren ondoren** egindakoak badira, eta analisi-eskemari buruzko edukia betetzen badute.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak **diru-laguntza eman eta urtebeteko epean** amaitu beharko dira.

Garraio, Mugikortasun eta Turismoko foru diputatuak epea luzatzeko baimena eman ahal izango du, idatz-zatietan adierazitakoaren arabera.

## Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuaren **% 100** izango da, biztanleria-tarteen araberrako gehieneko muga hauekin:

- 5.000 biztanle arte: **6.000 euro**.
- 5.001 eta 20.000 biztanle artean: **10.000 euro**.
- 20.000 biztanletik gorako biztanleria: **15.000 euro**.

**Mankomunitateen** kasuan, gehieneko muga kalkulatzeko, ordezkatzan dituen udalerrietako biztanle-kopurua batuko da, diruz lagundu daitezkeen ekintzaren xede direnak. Horrela, biztanle-tarteen araberrako gehieneko mugak, mankomunitateen kasuan, honako hauek izango dira:

- 10.000 biztanle arte: **10.000 euro**.
- 10.001 eta 30.000 biztanle artean: **15.000 euro**.
- 30.000 biztanletik gorako biztanleria: **20.000 euro**.

## Intereseko beste alderdi batzuk

Udalek eskabidea aurkeztu ahal izango dute modu independentean, nahiz eta mankomunitate batekoak izan eta mankomunitate horrek ere diru-laguntza eskuratzeko eskaera aurkeztu badu, baldin eta azken horren diruz lagun daitezkeen egitateak ez badu barne hartzen eskaera egin duen udalarena. Ondorio horietarako, dagokion mankomunitateak zehaztu beharko du zein udal-eremutan egin den diagnostikoa.